

**FORU GOBERNU KONTSEILUAREN 1/2021 ARAUGINTZAKO FORU DEKRETUA,
IRAILAREN 29KOA. ONESTEA TOKI OGASUNAK ARAUTZEN DITUEN FORU
ARAUAREN TESTU BATEGINA.**

AURRERANTZEAN, FORU ARAUA

(ALHAO, 114. zk., 21-10-6koa)

(Arabako Biltzar Nagusiek baliozkotua 2021ko urriaren 27an hartutako erabakiaren bidez)

2021erako Zerga Neurriei buruzko urtarrilaren 29ko 2/2021 Foru Arauaren lehenengo xedapen gehigarriak baimena ematen dio Foru Gobernu Kontseiluari zenbait foru arau behar bezala erregularizatuta, argituta eta harmonizatuta bilduko dituzten testu bateginak onesteko; besteak beste, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailearen 19ko 41/1989 Foru Araua eta hura aldatzen duten xedapenak.

Araugintzako foru dekretu honen xedea Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Araua bateratzea da, emandako baimenez baliatuz.

Arau honek proportzionaltasun printzipioa errespetatzen du, eta xedapen orokor honen bidez estali nahi den premiari erantzuteko beharrezkoak diren arauak ditu. Ez dago xede horretarako beste neurririk hartzaileen eskubideak gutxiago murrizten dituztenik edo hartzaileei betebeharrak gutxiago jartzen dizkietenik.

Ekimen horren bidez segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, eta koherentea da nazioko eta Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Araugintzako foru dekretu hau izapidetzean gardentasun irizpidea aplikatu da; printzipio hori urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, arautzen du 129. artikuluan.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako araudi inaktuaren txostena aztertu da.

Ebazpena alde aurretik Aholku Batzordeak aztertzeke aurkeztu da, baina ez zaie jarraitu haren ondorio guztiei.

Horregatik guztiagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 7. artikuluan Foru Aldundiari ematen dizkion ahalmenez baliatuta, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onestea.

Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onesten da, eta jarraian txertatzen da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Araudi indargabetuaren aipamenak.

Ordenantzetan eta beste xedapen batzuetan Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauari egiten zaizkion arau erreferentziak onesten den testuateginari dagozkion aginduei egiten zaizkiela ulertuko da.

Bigarrena. Beste arau aipamen batzuk.

Beste foru arau batzuek edo xedapen orokorrek, gaur egun edo etorkizunean, Toki Ogasunak arautzen dituen foru aruari egiten dizkioten arau erreferentziak onesten den testuateginari egindakotzat hartuko dira.

Hirugarrena. Arau aipamenak.

Araugintzako foru dekretu honi buruzko erreferentziak foru arau kontzeptuari egingo zaizkio hemendik aurrera.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA. Foru arau hau indarrean jarri aurreko erregulazioa.

Foru arau hau indarrean jarri aurretik hasitako ekitaldietan udalek zerga itunduetan, itunduta ez daudenetan eta bestelako sarrera publikoetan duten partaidetza zehazteko araugintzako foru dekretu honek indargabetutako legeria aplikatuko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA. Arauak indargabetzea.

Indargabetuta geratzen dira araugintzako foru dekretu honen eta onesten duen testuateginaren aurkakoak diren maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak, eta, bereziki, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Araua.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Araugintzako foru dekretu hau eta onesten duen testuategina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Bigarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Arabako Batzar Nagusiei araugintzako foru dekretu honen eta onesten duen testuateginaren berri emango zaie, indarrean dagoen legerian ezarritako izapideak egin ditzaten.

TOKI OGASUNAK ARAUTZEN DITUEN FORU ARAUAREN TESTU BATEGINA

I. TITULUA

Aplikazio eremua

1. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Foru arau hau Arabako Lurralde Historikoko udal erakundeei, udalaz gaindiko erakundeei eta udalerrria baino lurralde eremu txikiagoko erakundeei aplikatuko zaie, nazioarteko itunak eta hitzarmenak eragotzi gabe.

2. Aurreko idatz zatian aipatzen diren erakundeei Zergen Foru Arau Orokorra aplikatu ahal izango zaie, foru arau honetan ezartzen diren berezitasunak kontuan hartuz.

II. TITULUA

Udal erakundeak

I. KAPITULUA

Baliabideen zerrenda

2. artikulua. Baliabideen zerrenda.

1. Arabako Lurralde Historikoko udalen ogasunean honako baliabide hauek daude:

a) Udalen ondareak sortzen dituen sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainerako guztiak.

b) Udalen tributu propioak: zergak, tasak eta kontribuzio bereziak.

c) Udalek zerga itunduetan, itunduta ez daudenetan eta gainerako sarrera publikoetan dituzten partaidetzak.

d) Dirulaguntzak.

e) Prezio publikoengatik jasotzen dituztenak.

f) Kreditu eragiketen emaitzak.

g) Udalek beren eskumenen eremuan jartzen dituzten isunen eta zehapenen emaitzak.

h) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak.

2. Aurreko idatz zatian ezartzen denarekin bat etorritz, udalek Arabako Lurralde Historikoko Ogasunerako legez ezarritako eskumenak eta eskubideak edukiko dituzte zergak eta zuzenbide publikoko sarrerak kobratzeko, eta, behar denean, bidez administrazio prozeduren arabera jardungo dute.

II. KAPITULUA

Zuzenbide pribatuko sarrerak

3. artikulua. Definizioa.

1. Arabako Lurralde Historikoko udalen zuzenbide pribatuko sarrerak dira beren ondareak sortzen dituen denetariko etekinak eta produktuak, bai eta jaraunspen, legatu edo dohaintza bidez jasotzen dituzten eskuraketak ere.

2. Ondorio hauetarako, udalen ondareztat jotzen dira beren jabetzako ondasunak, bai eta titular diren ondasun errealak eta pertsonalak ere (balorazio ekonomikoa egin ahal bazaie); nolana ere, ezinbestekoa da ondasunak zein eskubideak ez egotea atxikita erabilera edo zerbitzu publikoari.

3. Inolaz ere ez dira zuzenbide pribatuko sarreretat hartuko jabari publikoko ondasunek sortzen dituztenak (kontzeptu guztiak).

4. artikulua. Araubide juridikoa.

Kapitulu honetan aipatzen diren udal ogasunen eskubideak erabiltzeko zuzenbide pribatuko arauak eta prozedurak aplikatuko dira.

5. artikulua. Xedeen mugak.

Ondarekoak diren ondasunak edo eskubideak eskualdatuta edo kargatuta lortzen diren sarrerak ezin izango dira erabili gastu arruntak finantzatzeko, honako kasu hauetan izan ezik: eraikigarriak ez diren bide publikoen soberako lursailak edo udal zerbitzuetan erabili ezin diren efektuak.

III. KAPITULUA

Tributu propioak

LEHEN ATALA

Arau orokorrak

6. artikulua. Printzipioak.

Foru arau honen arabera udal erakundeek ezartzen dituzten tributuetan honako printzipio hauek errespetatu behar dira:

a) Ezin dituzte kargatu udalerritik kanpo dauden ondasunak, ez kanpoan egindako jarduerak, ez kanpoan sortutako etekinak, ez kanpoan egindako gastuak.

b) Ezin dituzte kargatu udalerritik kanpo egiten diren negozioak, egintzak ez ekintzak, ez eta udalerrian sortzen ez diren edo bertan burutu behar ez diren ondasunak, eskubideak eta obligazioak erabiltzea ez eskualdatzea ere.

c) Ezin dute eragotzi pertsona, salgai eta zerbitzu eta kapitalen zirkulazio askea, ez inolako eraginik eduki pertsonen egoitza edo enpresak eta kapitalak Estatu barruan ezartzeko aukeretan. Nolanahi ere, hori gorabehera, udal erakundeek eskumena dute beren lurraldeko hiri antolamendua ezartzeko.

7. artikulua. Eskumenak.

1. Arabako Lurralde Historikoko udalen eginkizunak izango dira, foru arau honek ezartzen duenaren esparruan, beren zergak kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, Zergen Foru Arau Orokorrean eta hura garatzeko ematen diren xedapenetan ezartzen denarekin bat etorriz. Nolanahi ere, udal zergei buruzko foru arauetan eta horiek garatzeko ematen diren xedapenetan ezartzen diren berezitasunak aintzat hartu behar dituzte.

2. Arabako Lurralde Historikoko udalek beren zerga ordenantzen bitartez aurreko idatz zatian aipatzen den arautegia beren antolaketarako eta funtzionamendurako barne araubidera moldatu ahal izango dute, baina moldaketa hori ezin da egon arautegiaren eduki materialaren kontra.

3. Ordaintzeko epeei eta betearazte aldia abiatuta izan eta premiamendu probidentzia jakinarazita duten zerga zorrei dagokienez, udalek Zergen Foru Arau Orokorrean 61. artikuluko 5. apartatuan xedatutakoa aplikatu ahal izango dute, edo bestela epe hauek aplikatu zerga zorra ordaintzeko:

a) Premiamendu probidentzia hilaren 1etik 15era bitartean jakinarazten bada, jakinarazpena jasotzen den egunetik hilaren 20ra arte; 20a balioduna ez bada, aldia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

b) Premiamendu probidentzia hilaren 16tik azken egunera bitartean jakinarazten bada, jakinarazpena jasotzen den egunetik hurrengo hilaren 5era arte; 5a balioduna ez bada, aldia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

8. artikulua. Lankidetzak.

Udal erakundeek eta Foru Aldundiak lankidetzan jardungo dute, beharrezko hitzarmena sinatuta, zergak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko lan guztietan.

Hala ere, administrazio horiek:

a) Zergen inguruan eskatzen duten informazio guztia emango diote elkarri; beharrezkoa izanez gero, horretarako interkomunikazio teknikoa ezarriko da.

b) Beren egitekoetarako behar den laguntza emango diote elkarri, eta udal zergen inguruan eskatzen dituzten datuak eta aurrekariak ere bai (araudian ezarriko da nola).

c) Zergen ikuskapen zerbitzuetako egiaztatze eta ikertze jardueren ondorioz beren zein beste administrazioaren zergen arloan eragina duen zerbaiten berri jakinez gero, elkarri jakinaraziko diote berehala (araudian ezarriko da nola).

d) Ikuskapen plan bateratuak eta koordinatuak landu eta prestatu ahal izango dituzte, helburu, sektore eta prozedura selektiboen arabera.

Zuzenbide publikoko sarrerak direla eta, udalerritik kanpo egin behar diren ikuskapen lanak eta nahitaezko diru bilketako lanak toki erakundeek egingo dituzte Arabako Lurralde Historikoan; gainerako kasuetan, ezarritako edo ezartzen diren lankidetzak jarraibideen arabera egingo dira, aplikagarri den legeriak ezartzen duenaren arabera.

9. artikulua. Zerga onurak.

Udalek, beren eskumenak erabiliz eta indarreko foru arauen esparruan, beren zergen inguruko onurak eman ahal izango dituzte; onura horiek beren aurrekontuetan sartu behar dituzte.

Hori dela eta, udalek halako zerga onurak udalerrira osoan aplikatzea ezartzen duen erabakia hartuko dute. Erabakia Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Udalek beren zerga ordenantzetan ehuneko 5era arteko kuota hobaria ezarri ahal izango dute aldizka mugaeguneratzen diren zorrak finantza entitate batean helbideratzen dituzten subjektu pasiboentzat, ordainketak aurreratzen dituztenentzat edo zerga bilketan laguntzen duten jarduerak egiten dituztenentzat.

10. artikulua. Errekarguak eta berandutze interesak.

Toki zergen eta toki erakundeen zuzenbide publikoko gainerako sarreren ordainarazpenean, errekaratuak eta berandutze interesak Foru Aldundiaren zergen ordainarazpenean bezala eskatu eta kalkulatu dira (kasu, modu eta zenbateko berak).

Zerga ordenantza ezarri gero, ez da eskatuko berandutze interesik borondatezko epealdian ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskatu eta aldeko erabakia ematen denean, ordenantzan ezartzen diren baldintzak eta gainerako inguruabar guztiak betez gero, baldin eta zorrak aldizka mugaeguneratzen badira eta taldeka jakinarazten badira eta haien zenbateko osoa sortu diren ekitaldi berean ordaintzen bada.

11. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak.

Udalen zergen arloan Zergen Foru Arau Orokorrak eta hura osatzen eta garatzen duten xedapenek arautzen duten arau hausteen eta zehapenen araubidea aplikatuko da, baina foru arau honetan edo udalen zergen foru arauetan ezartzen diren berezitasunak kontuan

hartuz, bai eta foru arau horien babespean ematen diren udal ordenantzetan ezartzen direnak ere.

12. artikulua. Zergapekoei informazioa eta laguntza ematea.

Udalen zergen kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa direla eta, Zergen Foru Arau Orokorrek III. tituluko I. kapituluko 2. atalean zergapekoei ezartzen dizkien informazio eta laguntza betebeharrak eginkizun horietan aritzeko eskumena daukan entitateari dagozkio.

13. artikulua. Erantzukizuna testamentu ahalordearen edo gozamen ahalduaren bidez gauzatzen diren jarauntsietan.

Testamentu ahalordearen edo gozamen ahalduaren bidez gauzatzen diren jarauntsietan administratzailea edo gozamendun ahaldua, hurrenez hurren, erantzule subsidiarioa izango da testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duen jarauntsiaren zerga zorrei dagokienez.

14. artikulua. Berrikuspen prozedura bereziak.

1. Udalari dagokio zergak aplikatzeko egintzak berrikustea eta erabat deusezak direla adieraztea, Zergen Foru Arau Orokorrek V. tituluan ezartzen dituen kasuetan eta bertan finkatzen den prozedurari jarraituz. Dena den, horrek ez du ezertan eragozten hurrengo idatz zatietan xedatzen dena.

2. Udalen zergen arloan, oker materialen zuzenketan eta zor ez diren sarreraren itzulketan Zergen Foru Arau Orokorreko 227. eta 228. artikuluetan xedatzen dena aplikatuko da.

3. Epai judizial irmoaren bidez berretsitako administrazio egintzak inolaz ere ezin izango dira berrikusi.

4. Zergen Foru Arau Orokorrean ezartzen diren kasuetan izan ezik, udalek ezin izango dituzte deuseztatu eskubideren bat deklaratzeko ematen dituzten egintzak. Horrelako egintzak deuseztatu ahal izateko, aurretik herritarren interesentzat kaltegarriak direla deklaratu beharko dute eta gero administrazioarekiko auzibidean inpugnatu beharko dituzte, jurisdikzio horretako legearekin bat etorriz.

15. artikulua. Berraztertze errekurtsoa.

Udal erakundeek beren zergen aplikazioari eta eraginkortasunari buruz ematen dituzten egintzen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri baino lehen, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio udal organo emaileari, hilabeteko epean, egintza berariaz jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

Errekurtsoa aldizka mugaeguneratzen den eta taldeka jakinarazi behar den zor baten ingurukoa bada, ordainketa egiteko borondatezko aldian aurkeztu ahal izango da, edo aldi hori amaitu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen.

16. artikulua. Administrazioarekiko diru erreklamazioak.

Toki erakundeek Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen jurisdikzioari heldu ahal izango diote. Horretarako, berariazko erabakia hartu eta Arabako Lurralde Historikoaren aldizkari ofizialean argitaratu beharko dute.

Aurreko paragrafoan azaltzen diren kasuetan, berraztertze errekurtsoaren berariazko edo isilbidezko ebazpenaren aurka interesdunak administrazioarekiko diru erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari administrazioarekiko auzibidean sartu aurretik; horretarako hilabete epealdia edukiko du aurkaratu nahi duen egintza jakinarazten dioten egunaren biharamunetik edo Administrazioaren isiltasunak ondoriok sortzen dituen egunaren biharamunetik aurrera.

Horrelakoetan administrazioarekiko diru erreklamazioetarako ezarritako arauak aplikatuko dira.

Dena dela, udalak bere organoa sortu badu administrazioarekiko diru erreklamazioak ebazteko, udal organo horrek edukiko du halako erreklamazioak ezagutzeko eskumena. Betiere, zein arautegiren itzalpean sortu den udal organoa, hareekin bat etorritik jardun beharko du.

17. artikulua. Aurkaratutako egintzaren betearazpena etetea.

Udalen zergen aplikazioari eta eraginari buruzko egintzen aurka berraztertze errekurtsoa aurkezteko ez da beharrezkoa izango eskatzen den zenbatekoa alde aurretik ordaintzea. Hala ere, errekurtsoa edo erreklamazioa aurkezteak ez du kobrantzaren ekintza administratiboa etengo (salbuespena: borondatezko epealdian dauden zerga zehapenak), baldin eta, errekurtsoa aurkezteko epealdiaren barruan, interesdunak aurkaratutako ekintza eteteko eskatzen ez badu; ekintza eteteko eskatu ahal izateko, zerga zorra osoa estaltzen duen bermea aurkeztu behar da (hori eginez gero, eskatutakoa emango da, hau da, kobrantza etengo da). Errekurtsoa aurkezten duenak honako bermeetako bat jarri beharko du:

a) Gordailua udal erakunde interesduneari: eskudirua zein balore publikoak.

b) Kreditu entitate batek edo elkarrekiko bermerako sozietate batek emandako abala edo fidantza solidarioa edo kauzio aseguruaren ziurtagiria, udal erakunde interesdunaren aldekoa.

c) Fidantza pertsonal eta solidarioa, kaudimen nabaria duen Arabako Lurralde Historikoko beste zergadun batek emana. Berme hori 601,01 eurotik beherako zorretarako bakarrik onartuko da.

Hala ere, kasu oso berezi eta apartekoetan, alderdi batek eskatuta, udal erakundeek prozedura eteteko eskatu ahal izango dute inolako bermerik jarri gabe, baldin eta errekurtsioa aurkezten duenak eskaeran argi eta garbi alegatzen eta frogatzen badu ezin duela jarri berme hori edo modu sinesgarrian frogatzen badu toki zergen aplikazioari eta eraginkortasunari buruzko ekintzetan akats material edo aritmetikoren bat gertatu dela.

Etendura emateak berekin ekarriko du etendurak dirauen bitartean sortzen diren berandutze interesak ordaindu behar izatea.

BIGARREN ATALA

Zerga ordenantzak

18. artikulua. Zerga ordenantzen edukia.

Foru arau honetan aipatzen diren zergak ezartzeko, arautzeko eta mantentzeko behar diren zerga ordenantzetan honako alderdi hauek zehaztu behar dira, gutxienez:

- a) Zerga gaia, subjektu pasiboa, erantzuleak, salbuespenak, murrizketak eta hobariak, zerga oinarria eta likidazio oinarria, karga tasa edo zerga kuota, zergaldia eta sortzapena.
- b) Aitorpen eta sarrera araubideak.
- c) Ordenantza onartu den eguna eta aplikatzen hasteko eguna.

Zerga ordenantza hauetako bakoitzaren onarpenaren erabakia zerga ezartzeko erabakiarekin batera hartu behar da.

Ordenantzak aldatzeko erabakietan ukitutako arauen testu berriak agertu behar dira, eta haiek noiz onartu diren eta noiz hasi diren aplikatzen zehaztu.

19. artikulua. Zerga ordenantzak prestatzea, argitaratzea eta zabaltzea.

1. Udal korporazioek zergen ezarpen, ezabatze eta antolamendurako eta zerga kuotak zehazteko behar diren elementuak finkatzeko hartzen dituzten erabakiak eta zerga ordenantzen onarpenak eta aldarazpenak beren iragarki oholetan jarriko dira hogeita hamar egunetan, gutxienez, eta aldi horretan interesdunek espedientea aztertu ahal izango dute eta nahi dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

2. Udal erakundeek azalpen iragarkiak nahitaez argitaratu behar dituzte Arabako Lurralde Historikoaren aldizkari ofizialean. Era berean, hamar mila pertsona baino gehiagoko zuzenbideko biztanleria duten erakundeek Lurralde Historikoan hedapenik handienetako den egunkari batean argitaratu beharko dituzte.

3. Jendaurreko erakusketaldia amaitu ondoren udal korporazioek behar diren behin betiko erabakiak hartuko dituzte aurkeztutako erreklamazioak ebazteko eta ordenantzaren behin

betiko testua onartzeko, indargabetzeko edo behin behineko erabakian aipatzen diren aldaketak egiteko. Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin-behineko erabakia behin betikotzat joko da.

4. Edonola ere, aurreko idatz zatian aipatzen diren behin betiko erabakiak (modu automatikoan behin betiko bihurtutako behin-behinekoak barne) eta ordenantzen edo beren aldarazpenen testu bateratua Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira; izan ere, ez dira indarrean jarriko harik eta bertan argitaratu arte.

5. Hogei mila pertsona baino gehiagoko zuzenbideko biztanleria duten udalerrietako erakundeek beren zergak arautzen dituzten ordenantzen testu osoak argitaratuko dituzte ekitaldi ekonomiko bakoitzeko lehen hiruhilekoan.

Dena den, udal erakundeek argitaratutako zerga ordenantzen kopiak eman beharko dizkiete eskatzen dituzten guztiei.

20. artikulua. Behin-behineko erabakien kontrako erreklamazioak aurkez ditzaketen interesdunak.

Aurreko artikuluko lehen idatz zatian xedatzen denaren ondorioetarako, honako hauek izango dira interesdunak:

a) Zuzeneko interesa dutenak edo erabakiak zuzenean ukitzen dituenak.

b) Lanbide, ekonomia edo auzoko interesen alde egiteko legez eraturako elkargoak, ganbara ofizialak, elkarteak eta gainerako entitateak, beren interesen defentsan ari direnean.

21. artikulua. Administrazioarekiko auzi errekurtsua.

1. Foru arau honetako 19.3 artikuluan aipatzen diren udal erakundeen zerga ordenantzak berek ezartzen duten epealdian (mugatua edo mugagabea) egongo dira indarrean. Ordenantza horien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua baino ezin izango da aurkeztu, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik aurrera, jurisdikzio horretako arauetan ezartzen den moduan eta finkatzen diren epealdietan.

2. Udal erabakia edo zerga ordenantza baten testua ebazpen judizialaren ondorioz baliogabetzen edo aldatzen bada, korporazioak baliogabetzea edo ebazpenaren testu berria argitaratu beharko du foru arau honetako 19.4 artikuluan ezartzen den bezala.

HIRUGARREN ATALA

Zergak

22. artikulua. Zergak.

1. Arabako Lurralde Historikoko Udalek honako zerga hauek eskatu beharko dituzte beren arauak eta xedapenak aplikatuz:

- a) Ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- b) Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga.
- c) Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.
- d) [\(2\)](#) Egonaldi turistikoaren gaineko zerga.

Udal batek erabakitzen badu foru arauak zerga horiekin aritzeko ematen dizkioten ahalmenak erabiltzea, horretarako erabakia hartu beharko du eta zerga ordenantza egokia onartu beharko du.

2. Era berean, Arabako Lurralde Historikoko udalek hona zerga hauek ezarri eta eskatu ahal izango dituzte, foru arau honek ezartzen dituen printzipioen esparruan eta zerga ezartzeko eta ordenantza egokia onartzeko erabaki ondoren:

- a) Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga.
- b) Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga.

LAUGARREN ATALA

Tasak

LEHEN AZPIATALA

Xedapen orokorra

23. artikulua. Xedapen orokorra.

1. Arabako Lurralde Historikoko udalek udalaren jabari publikoaren erabilpen pribatiboa edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak ezarri eta eskatu ahal izango dituzte, tasa ezartzeko eta bidezko ordenantza onartzeko erabakia hartu ondoren eta foru arau honetan ezartzen denarekin bat etorritik. Halaber, udalaren eskumeneko zerbitzu

publikoak edo administrazio jarduerak (subjektu pasiboak modu berezian ukitzen dituztenak, haiei eragiten dietenak edo onura ekartzen dietenak) egiteagatik ordaindu beharreko tasak ere ezarri eta eskatu ahal izango dituzte.

Nolanahi ere, tasatzat hartuko dira Arabako Lurralde Historiko udalek honako hauengatik ezartzen dituzten ondare prestazioak:

A) Udalaren jabari publikoaren erabilpen pribatiboa edo aprobetxamendu berezia.

B) Udalaren eskumeneko zerbitzu publikoa edo administrazio jarduera (subjektu pasiboak modu berezian ukitzen dituenak, haiei eragiten diena edo onura ekartzen diena) egitea zuzenbide publikoko araubidean, honako kasu hauetan:

a) Zerbitzua edo jarduera ez izatea herritarrek beren borondatez eskatzen edo jasotzen dituztenetakoa. Hori dela eta, honako kasu hauetan herritarrek ez dute beren borondatez eskatzen edo jasotzen zerbitzua edo jarduera:

- Lege edo arau xedapen batean agintzen denean.

- Eskatutako ondasuna, zerbitzua edo jarduera ezinbestekoa denean eskatzailearen bizitza pribaturako edo sozialerako.

b) Zerbitzua edo jarduera ez egitea sektore pribatuan, indarreko araudiaren arabera sektore publikoarentzat erreserbatuta egon zein ez.

2. Aurreko 1. idatz zatian ezartzen denarekin bat etorritz, Arabako Lurralde Historiko udalek udalaren jabari publikoaren erabilpen pribatiboa edo aprobetxamendu berezia gertatzen den kasu guztiengatik tasa ordaindu beharra ezarri ahal izango dute, batez ere kasu hauengatik:

a) Udalaren jabari publikoko lurretatik hondarra eta eraikuntzako beste material batzuk ateratzea.

b) Udalaren jabari publikoko lurretan elur putzuak edo euri urak biltzeko uharkak egitea.

c) Bainuetxeak eta ur publikoaren ohiko erabileraz kanpoko beste ur gozamen batzuk.

d) Teilatu hodiak eta antzerako beste instalazio batzuk udalaren jabari publikoko lurretara isurtzea eta hustea.

e) Udalaren jabari publikoko lurpea okupatzea.

f) Udalaren jabari publikoko lurretan (udalerriko errepideak, bideak eta gainerako bide publikoak barne) zangak, laginketak eta zuloak egitea hodiak, tutuak eta bestelako instalazioak jarri eta konpontzeko, eta bide publikoetan zoladura edo espaloiak kentzea.

g) Erabilera publikoko lursailak salgaiekin, eraikuntza materialekin, obra hondakinekin, hesiekin, eustoinekin, astotxoekin, aldamiokekin eta antzeko instalazioekin okupatzea.

h) Espaloietan zehar ibilgailuak sartzea eta bide publikoa erreserbatzea aparkaleku pribaturako, ibilgailu geltokirako eta edozein motatako salgaien zama lanetarako.

i) Udalerriko mota orotako bide publikoetako lurra edo lurpea okupatzen duten pisuetako burdinsareak, argizuloak, egurasbideak, sarrerako ateak, zamaketa zuloak edo antzeko elementuak instalatzea soto edo erdisotoetara argia, airea, pertsonak edo salgaiak sartzeko bide emateko.

j) Udalerriko mota orotako bide publikoetako hegalkina eraikuntza elementu itxiekin, terrazekin, begiratokiekin, balkoiekin, markesinekin, toldoekin, haize babesekin eta bide publikoaren gainean hedatu edo fatxada lerrotik irteten diren antzeko beste instalazio batzuekin okupatzea.

k) Elektraindarra, ura, gasa edo beste edozein jariakin eramateko hariteriak, hoditeriak eta galeriak, lineetarako zutoinak barne direla, kableak, tximeletak, lotura, banaketa edo erregistro kaxak, eraldagailuak, errailak, baskulak, salmenta automatikorako aparatuak eta bide publikoen edo udalaren jabari publikoko beste lurren gainean kokatu edo haien gainean hedatzen direnak.

l) Udalaren jabari publikoko lurra mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzeko beste elementu batzuekin okupatzea dirua irabazteko helburuarekin.

m) Bide publikoan kioskoak instalatzea.

n) Udalaren jabari publikoko lurretan postuak, barrakak, salmenta etxolak, ikuskizunak edo jolasgaiak instalatzea; kaleko industria eta industria ibiltariak eta zine filmaketa.

ñ) Portadak, erakusleihoak eta beira arasak.

o) Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kargapean ez dauden ibilgailuak gurpilez zein arrastaka ibiltzea.

p) Bide publikoetatik edo udalaren jabari publikoko lurretatik abereak pasatzea.

q) Lurrei eusteko edo sostengatzeko hormak, eraikuntzak edo hesiak (behin-behinekoak nahiz behin betikoak) jartzea udalerriko bide publikoetan.

r) Udalaren jabari publikoko lurretan erregaia eta, oro har, edozein gauza edo salgai gordetzeko eta banatzeko biltoki eta aparatuak jartzea.

s) Erabilera publikoko udal lurra okupatzen dituzten iragarkiak ipintzea.

t) Errepide, bide eta udalerriko beste bide publikoetan atarjeak eta araken gainean eta lubetetan edozein motatako ibilgailuentzako eta abereak igartzeko pasabideak egitea.

u) Trakzio mekanikoko ibilgailuak udalerrietako bideetan aparkatzea, horretarako zehazten diren eremuen barruan eta ezarri daitezkeen mugekin.

3. Aurreko 1. idatz zatian ezartzen denarekin bat etorritik, Arabako Lurralde Historiko udalek udalaren eskumeneko zerbitzu publikoa edo administrazio jardura egiten den kasu guztiengatik tasa ordaindu beharra ezarri ahal izango dute, batez ere kasu hauengatik:

- a) Interesdunak eskatuta, udal administrazioak edo udal agintariek dokumentuak ematea edo bideratzea.
- b) Plaka, agiri eta antzerako beste bereizgarri batzuetan udalaren armarria erabiltzeko baimena ematea.
- c) Autotaxien eta alokairuko beste ibilgailuen administrazio baimenak edo lizentziak ematea.
- d) Landazaintza.
- e) Herri ahotsa.
- f) Zaintza berezia eskatzen duten establezimenduetan.
- g) Udalaren eskumeneko zerbitzuak, bereziki jendaurreko ikuskizunengatik, garraio handiengatik, karabanen pasaeragatik eta zerbitzu berezi horiek ematea beharrezko egiten duen beste edozein jarduerarengatik sortuak.
- h) Lurzoruari eta hiri antolamenduari buruzko legerian eskatzen diren hirigintzako lizentziak ematea edo, lizentzia eskatu beharrean erantzukizunpeko aitortpena edo aurretiazko berriematea aurkeztu behar den kasuetan, kontrol jarduera administratiboak egitea.
- i) Establezimenduak irekitzeko lizentziak ematea edo, lizentzia eskatu beharrean erantzukizunpeko aitortpena edo aurretiazko berriematea aurkeztu behar den kasuetan, kontrol jarduera administratiboak egitea.
- j) Ibilgailu, lurrin galdara, motore, eraldagailu, igongailu, karga jasogailu eta industri eta merkataritza establezimenduetako antzeko beste aparatu eta instalazioen ikuskapena.
- k) Suteen prebentzio eta itzaltze zerbitzuak, hondamendi prebentzio zerbitzuak, eraikuntza eta eraisketak, salbamenduak eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuak (horren barruan daude zerbitzuaren mantenimendua eta zerbitzu horiei atxikitako makineria eta tresneriaren erabilpenaren lagapena: zurubiak, kupelak, motoponpak, txalupak, eta abar).
- l) Osasun ikuskatzaitzako zerbitzuak, bai eta analisi kimikoak, bakteriologikoak eta antzeko beste batzuk ere, eta, oro har, udalen laborategien eta beste osasun eta higiene establezimendu batzuen zerbitzuak.
- m) Prebentziozko osasun zerbitzuak, desinfekzio, intsektuak edo arratoiak hiltzea eta beste edozein gai eta produktu kutsagarriren edo herri osasunarentzat kaltegarriak diren germenak zabaltzen dituztenen suntsiketa, etxean bertan edo eskaera dela medio eginda.
- n) Udalen ospitale, klinika edo erietxe mediko-kirurgiko, psikiatriko eta berezietan, kontsultategietan, suspertze eta errehabilitazio zentroetan, anbulantzia eta antzerako beste zerbitzuetan, eta gainontzeko ongintza eta sorospen establezimenduetan egindako asistentziak eta egonaldiak, gastuak edozein izaeratako beste erakunde batzuek ordaindu behar dituztenean ere.

ñ) Hirugarren adinekoen etxe eta egoitzetan, haurtzaindegietan, aterpetxeetan eta antzerako beste establezimenduetan egindako asistentzia eta egonaldiak.

o) Bainuetxeak, dutxak, igerilekuak, kirol instalazioak eta antzeko beste zerbitzuak.

p) Udal hilerriak, gorpuak eramatea, eta udalen beste hileta zerbitzu batzuk.

q) Udalen jabetzako zutoinetan edo zerbitzu galerietan hodiak, hariak eta kableak ipintzea.

r) Estolderia zerbitzuak eta hondakin urak tratatzeko eta garbitzeko zerbitzuak, partikularren estolderien zaintza berezia barne.

s) Hiri hondakin solidoen bilketa, tratamendua eta suntsiketa, minda zuloen garbiketa eta kale partikularren garbiketa.

t) Ura, gasa, elektraindarrak eta antzeko beste hornikuntza publiko batzuen banaketa (lineetara lotzeko eta kontagailuak edo antzeko instalazioak ipintzeko eta erabiltzeko eskubideak barne), zerbitzu edo hornikuntza horiek udalek egiten dituztenean.

u) Hiltegi, lonja eta merkatu zerbitzua, bai eta haragi garraioa ere, derrigorrez egin beharreako denean; horniduren alorreko ikuskatze zerbitzuak, pisatzeko eta neurtzeko bideen erabilpena barne.

v) Irakaskuntza bereziak udalen ikastegietan.

w) Museoak, erakusketak, liburutegiak, monumentu historiko edo artistikoak, parke zoologikoak edo antzeko lekuak bisitatzea.

x) Udalen zutabe, karteldegi eta antzeko beste instalazioak iragarkiak ipintzeko erabiltzea.

y) Partikularrek eskatuta bide publikoak hondarrez estaltzea.

z) Hiriko trafikoa erregulatzeko eta kontrolatzeko ekintza bereziak, ibilgailuen zirkulazioa errazteko helburua dutenak, Udaltzaingoak trafiko antolaketan eta seinaleztapenean egiten dituen ohizko ekintzetatik aparte.

4. Udalek tasak ezarri ahal izango dituzte ezkontza zibilen espedienteak instruitu eta izapidetzeagatik eta ezkontza horiek egiteagatik.

5. Arabako Lurralde Historikoko udalek ezin izango dute tasarik kobratu honako zerbitzu hauengatik:

a) Iturri publikoetatik ura hartzea.

b) Bide publikoetako argiak.

c) Zaintza publikoa, oro har.

d) Babes zibila.

e) Bide publikoen garbiketa.

f) Derrigorrezko hezkuntzaren ikasmailetako irakaskuntza.

6. Estatuak, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek ez dute ordaindu beharko jabari publikoaren erabilera pribatuagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasarik zuzenean ustiatzen dituzten komunikabideen zerbitzu publikoei atxikitako aprobetxamenduengatik eta herritarren segurtasuna edo defentsa nazionala zuzenean ukitzen duten aprobetxamenduengatik.

7. Artikulu honen 3. apartatuak aipatzen dituen zerbitzu publikoak emateagatik jasotzen diren hertsapenezko kontraprestazio ekonomikoak tributu izaera ez duten ondare prestazio publikotzat hartuko dira, Konstituzioaren 31.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz; prestazio hori pertsonifikazio pribatuaren bidez zuzenean emandakoa edo zeharka kudeatutakoa izan daiteke.

Zehazki, halakotzat hartuko dira exijitzen direnak obrak ustiatzeagatik eta zerbitzuak emateagatik honako formula hauen bidez: emakida araubidea, ekonomia mistoko sozietateak, enpresa erakunde publikoak, kapital guztiz publikoa duten sozietateak eta zuzenbide pribatuko gainerako formulak.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 103. artikuluan ezartzen duena gorabehera, apartatu honetan arautzen diren kontraprestazio ekonomikoak ordenantza baten bidez arautuko dira. Ordenantza hori onesteko prozeduran zehar, toki erakundeek nahitaezko txostena eskatuko diete haien zereginetan esku hartzeko ahalmena –ordenamendu juridikoak aitortua– duten administrazio publikoei.

BIGARREN AZPIATALA

Zerga gaia

24. artikulua. Zerga gaia.

1. Tasen zerga gaia hauetako bat izango da, aurreko 23. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz: udalaren jabari publikoaren erabilpen pribatiboa edo aprobetxamendu berezia; udalaren eskumeneko zerbitzu publikoak edo administrazio jarduerak (subjektu pasiboak modu berezian ukitzen dituztenak, haiei eragiten dietenak edo onura ekartzen dietenak) egitea.

2. Administrazio jarduerak edo zerbitzuak subjektu pasiboari eragingo dio, edo hari egingo zaio, baldin eta hark eragin badu zuzenean edo zeharka, berak zerbait egiteagatik edo ez egiteagatik, eta horren ondorioz udalak ofizioz jarduerak egin edo zerbitzuak eman behar baditu, segurtasun zein osasun arrazoiengatik, herritarrak zerbaitez hornitu behar dituelako, edo hirigintza arloko zein beste edozein arlotako arrazoi bada tarteko.

25. artikulua. Bateragarritasuna kontribuzio bereziekin.

Zerbitzu bategatik tasa ordaintzeak ez du eragozten hura ezartzeagatik edo zabaltzeagatik kontribuzio berezia ordaindu behar izatea.

HIRUGARREN AZPIATALA

Subjektu pasiboak

26. artikulua. Subjektu pasiboak.

1. Tasen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisikoak eta juridikoak eta Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen dituen entitateak, eta testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dauden jarauntsiak, baldin eta:

a) Udalaren jabari publikoa gozaten, erabiltzen edo modu berezia aprobetxatzen badute beren onurarako, foru arau honetako 23.2 artikuluan azaltzen den bezala.

b) Udalek egiten dituzten zerbitzu edo jarduerak eskatzen badituzte edota horien onura nahiz eragina jasotzen badute, foru arau honetako 23.3 artikuluan azaltzen den bezala.

2. Zergadunaren ordezkioak izango dira:

a) Zerbitzuek edo jarduerak etxebizitzaren edo lokalen erabiltzaileei onura edo eragina ekartzen badiete, horiengatik ordaindu beharreko tasetan, ondasun higiezin horien jabeak. Horiek, bidezkoa bada, onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko araudian xedatzen diren hirigintza baimenen tasetan, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

c) Arriskua aseguratzen duten entitateak edo elkarteak, zerbitzu hauen tasetan: suteen prebentzioa eta itzaltzea; aurri, eraikuntza eta eraisketen prebentzioa, salbamenduak eta, oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta zerbitzua mantentzea.

d) Ibilgailu edo gurdientzako espaloietako sarrerak direla eta erabilera pribatuaren edo aprobetxamendu bereziaren tasetan, edo sarrerak eraikitzeko, mantentzeko, aldatzeko edo kentzeko xedatutako tasetan, ibilgailuak sartzen diren finken eta lokalen jabeak. Bidezko kasuetan, ordezkoek onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete kuotak.

LAUGARREN AZPIATALA

Zenbatekoa eta sortzapena

27. artikulua. Zenbatekoa.

1. Udalaren jabetza publikoko ondasunen erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasen zenbatekoa arau hauei jarraikiz zehaztuko da:

a) (1) Oro har, ondasunak erabilera publikokoak ez balira, erabilera edo aprobetxamendu horrek sortzen duen onurak merkatuan edukiko lukeen balioa erreferentzia hartuta. Horretarako, zerga ordenantzek onura horrek merkatuan duen balioa zehazteko irizpideak eta parametroak onar ditzakete kasu bakoitzean, erabilera pribatuaren edo aprobetxamenduaren izaera berezia kontuan hartuta.

Udal bide publikoetako zoruan, zorupean edo haien gaineko hegadan eraturiko erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezien ondoriozko tasen kasuan, baldin eta interes orokorreko hornidura-zerbitzuak edota auzotarren gehiengoa edo kopuru garrantzitsu bat ukitzen duten hornidura-zerbitzuakustiatzen dituzten enpresen aldeko erabilera edo aprobetxamenduak badira, tasaren zenbatekoa ezin izango zaie zerbitzuenerabiltzaileei jasanarazi.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, halako zerbitzuak banatu edo merkaturatzen dituzten enpresak hartuko dira zerbitzuon ustiatzailatzat, eta xedatutakoa aplikatuko zaie bai hornidurak egiteko sareen titularrak direnei, bai, sareen titularrak ez izan arren, haiek erabiltzeko, haietan sartzeko edo haiei lotzeko eskubideen titular direnei.

b) Enkantean hartzeko eskaintza publikoen prozedurak erabiltzen direnean, kontzesio, baimen edo esleipen proposamenaren balio ekonomikoaren arabera izango da tasaren zenbatekoa.

c) (1) a) letran ezarritakoaren kaltetan joan gabe, udal bide publikoetako zoruan, zorupean edo haien gaineko hegadan eraturiko erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezien ondoriozko tasen kasuan, baldin eta interes orokorreko hornidura-zerbitzuak edota auzotarren gehiengoa edo kopuru garrantzitsu bat ukitzen duten hornidura-zerbitzuakustiatzen dituzten enpresen aldeko erabilera edo aprobetxamenduak badira, aipaturiko enpresek udal mugarte bakoitzean urtean lortzen duten fakturaziotik eratorritako diru-sarreraren gordinen 100eko 1,5koa izan daiteke tasen zenbatekoa.

Hori dela-eta, zerbitzuenerabiltzailatzat hartuko dira haiek banatu eta merkaturatzen dituzten enpresak.

Honako c) letra honetan aipaturiko enpresa guztiei aplikatu ahal izango zaie zenbatekotzeko araubide berezi hau, bai hornidurak egiteko sareen titularrak direnei, bai, sareen titularrak ez izan arren, haiek erabiltzeko, haietan sartzeko edo haiei lotzeko eskubideen titular direnei.

Letra honetan xedatutakoari dagokionez, honako hauek hartuko dira fakturaziotik eratorritako sarrera gordintzat: erakunde batek udalerrri bakoitzean egindako zerbitzuen ordainean jaso dituen sarreretatik berari egotzi ahal zaizkionak.

Horri dagokionez, ez dira sarrera gordinetan sartuko egindako zerbitzuak kargatzen dituzten zeharkako zergak, ezta, hirugarrenen kontura kobraturikoak izanik, tasa zenbatekotzeko araubide berezi hau aplikatzen zaion erakundearen sarrera propiotzat hartu ezin diren partida edo kopuruak ere. Era berean, ez dira fakturazioko sarrera gordinetan sartuko Ekonomia Ministerioko Energia Elektrikoa Ekoizteko Instalazioen Erregistro Administratiboaren 1. edo 2. atalean inskribaturiko instalazioetan erabiltzekoak diren hornidura-zerbitzuengatik jasotzen diren kopuruak, baldin eta hornituriko lehengaia araubide berezi honen menpeko zerga ordainketari loturiko energia sortzeko beharrezkoa bada.

Hornidura egiteko besteren sareak era biltzen dituzten enpresek fakturazioko sarrera gordinetatik kendu behar dituzte beste enpresa batzuen sareak erabiltzeagatik ordaintzen dituzten kopuruak. Sareen titularrak diren enpresek beren fakturazioko sarrera gordinetan sartu beharko dituzte kontzeptu horrengatik jasotako zenbatekoak.

Araubide berezi hau aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa ezin jasanaraz dakieke c) letra honetan aipaturiko hornidura zerbitzuenerabiltzaileei.

Honako c) letra honetan araupeturiko tasak bateragarriak dira toki eskumeneko zerbitzuak edo jarduerak egiteagatik ezartzen diren beste tasa batzuekin, letra honetan aipatutako enpresak halako tasen zergapeko badira foru arau honen 26.1. b) artikuluan ezarritakoaren arabera, baina tasa hau ordaintzen duenari ezin ordainaraz dakioke udal bide publikoetako zoruan, zorupean edo haien gaineko hegadan eraturiko erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezien ondoriozko beste tasarik.

2. Oro har, eta hurrengo paragrafoan ezartzen denarekin bat etorriz, zerbitzu edo jarduera bat egiteagatik ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa ezin da izan, guztira, zerbitzuaren edo jardueraren kostua (benetakoa edo ustezkoa) edo, bestela, jasotako prestazioaren balioa baino gehiago.

Zenbateko hori zehazteko kontuan hartuko dira zuzeneko eta zeharkako kostuak (finantza kostuak, ibilgetuaren amortizazioa eta, behar denean, tasa eskatzea eragiten duen zerbitzua edo jarduera mantentzeko eta zentzuz egiteko kostuak barne), kostuok ordaintzeko erabiltzen den aurrekontua zein haien kargua hartzen duen erakundea gorabehera. Zerbitzua edo jarduera mantentzeko eta zentzuz egiteko kostua organo eskudunak onartutako aurrekontu eta proiektuaren arabera kalkulatu da.

3. Zerga kuota hauetako bat izango da, beraren ordenantzan ezartzen denaren arabera:

a) Tarifa bat aplikatzearen ondoriozko kopurua.

b) Berariaz zehaztutako kopuru finkoa.

c) Aurreko bi prozedurak batera aplikatzearen ondoriozko kopurua.

4. Tasa baten zenbatekoa finkatzeko kontuan hartu ahal izango dira hura ordaindu behar dutenen gaitasun ekonomikoaren inguruko irizpide orokorrak.

5. Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia dela eta udal jabari publikoa apurto edo hondatzen bada, tasa ordaintzeaz gainera egin beharreko berreraikitze edo konponketa gastuen kostua osorik itzuli beharko du onuradunak, eta hari dagokion zenbatekoa alde aurretik gordailutu beharko du.

Kalteak konpondu ezinezkoak badira, entitateak kalte ordaina jasoko du: suntsitutako ondasunen balioa edo kalte hartutako ondasunen narriaduraren zenbatekoa.

Udalek ezin izango dituzte barkatu idatz zati honetan aipatzen diren kalte ordainak ez itzulkinak.

28. artikulua. Tasak ezartzeko erabakiak.

Jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak edo zerbitzu berriak osorik edo zati batean finantzatzeko tasak ezartzeko erabakiak hartzeko, erabileraren edo aprobetxamenduaren merkatuko balioa edo zerbitzu berriaren kostuaren estaldura aurreikusgarria, hurrenez hurren, azaltzen duen txosten tekniko-ekonomikoa aurkeztu beharko da.

Ez da beharko txosten tekniko-ekonomikorik errebalorizazioek eta eguneratze orokorrek eragiten dituzten erabakiak hartzeko, ez eta tasaren zenbatekoa gutxitzeko ere, dena delako zerbitzuaren kostua nabarmen murrizten denean izan ezean.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena dela eta, murrizketa nabarmentzat hartuko da aurreikuspenaren arabera zerbitzuaren kostuak izango duen beherakada aurreko erabakiari (ezarpenekoa zein aldaketa nabarmena egitekoa) atxikitako txosten tekniko-ekonomikoan aurreikusitako kostuaren ehuneko 15a baino gehiago bada. Txosten tekniko-ekonomikoa ez dela behar frogatzeko, gastua kudeatzen duen organoak aldaketa erabakiaren espedientean berariaz adierazi beharko du murrizketa ez dela nabarmena.

29. artikulua. Sortzapena.

1. Tasak zerga gaiaren arabera eta berariazko zerga ordenantzak ezartzen duenarekin bat etorritik sortuko dira:

a) Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean, edo zerbitzua edo jarduera egiten hasten denean. Hala ere, batera zein bestera, zenbatekoa alde aurretik jartzeko eskatu ahal izango da.

b) Jarduketa edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean. Hura egin edo izapidetu aurretik bidezko kopurua ordaindu beharko da.

2. Tasaren izaera materiala dela eta hura aldizka sortu behar bada, eta hala ezartzen bada beraren zerga ordenantzan, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko da eta zergaldia urte naturala izango da. Salbuespena: erabilera pribatiboa, aprobetxamendu berezia edo zerbitzuaren edo jardueraren erabilera hastea edo amaitzea; hori gertatzen denean,

zergaldia gertatutakoaren arabera izango da eta kuota hainbanatuko da, zerga ordenantzan ezartzen denarekin bat etorriz.

3. Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzu publikoa, administrazio jardura edo jabari publikoa erabiltzeko edo aprobetxatzeko eskubidea ematen edo egiten ez bada, kopurua itzuli beharko da.

30. artikulua. Kudeaketa.

1. Udalek autolikidazio bidez eskatu ahal izango dituzte tasak.

2. Udalek lankidetzaren hitzarmenak egin ahal izango dituzte tasen subjektu pasiboak ordezkatzeko dituzten entitateekin eta erakundeekin, tasek berekin dakartzaten eginbehar formal eta materialak betetzeko edo haiek likidatzeko eta biltzeko prozedurak errazteko

BOSGARREN ATALA

Kontribuzio bereziak

LEHEN AZPIATALA

Xedapen orokorra

31. artikulua. Xedapen orokorra.

Arabako Lurralde Historikoko udalek subjektu pasiboari mozkin edo ondasunen balio gehikuntza sortzen dieten obra publikoak egiteagatik edo udal zerbitzuak ezartzeagatik edo zabaltzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio bereziak ezarri eta eskatu ahal izango dituzte, ezartzeko eta onartzeko erabakia hartu ondoren.

BIGARREN AZPIATALA

Zerga gaia

32. artikulua. Zerga gaia.

Kontribuzio berezien zerga gaia da subjektu pasiboak mozkin edo ondasunen balio gehikuntza jasotzea obra publikoak egiteagatik edo udal zerbitzuak ezartzeagatik edo zabaltzeagatik.

33. artikulua. Udal obrak eta zerbitzuak.

1. Udal obrak eta zerbitzuak dira:

a) Udal erakundeek beren eskumenen esparruan egiten dituztenak esleituta dituzten helburuak betetzeko, honako hauek izan ezik: beren ondareko ondasunen jabe diren aldetik egiten dituztenak.

b) Udal erakundeek beste erakunde publiko batek esleituta edo eskuordetuta egiten dituztenak eta legeriaren arabera beren jabetzakoak direnak.

c) Beste erakunde publiko batzuek, edo haien kontzesiodunek, udal erakundeen ekarpenekin egiten dituztenak.

2. Aurreko idatz zatiko a) letran azaltzen diren udal obrek eta zerbitzuek ez dute galduko izaera hori, nahiz eta sozietate kapital osoa udal erakunde baten esku dagoen erakunde autonomo edo merkataritzako sozietate batek egin, edo udal erakunde baten ekarpenak jasotzen dituen kontzesiodun batek, edo foru arau honetako 40. artikuluan aipatzen diren zergadunen administrazio elkarte batek.

3. Kontribuzio berezien bidez biltzen diren diru zenbatekoak eskatzea eragin duen obrak edo zerbitzuak eragiten dituen gastuak ordaintzeko bakarrik erabili ahal izango dira.

HIRUGARREN AZPIATALA

Subjektu pasiboa

34. artikulua. Subjektu pasiboa.

1. Kontribuzio berezien subjektu pasiboak izango dira pertsona fisikoak zein juridikoak, Zergen Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren entitateak, eta testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dauden jarauntsiak, baldin eta zerga ordaindu beharra sortzen duten obrak egiteak edo zerbitzuak ezartzeak edo zabaltzeak onura berezia ematen badie.

2. Honako pertsona hauek jasotzen dute onura berezia:

a) Ondasun higiezinak ukitzen dituzten obrak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo zabaltzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio bereziak: ondasunen jabeak.

b) Enpresa ustiapenen ondorioz obrak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo zabaltzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio bereziak: ustiapenaren titular diren pertsonak, entitateak edo testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dauden jarauntsiak.

c) Suhiltzaile zerbitzuak ezartzeagatik edo zabaltzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio bereziak: ukitutako ondasunen jabeak eta udalerrian ari diren arlo horretako aseguru konpainiak.

d) Lurpeko galeriak egiteagatik ordaindu beharreko kontribuzio bereziak: haiek erabiliko dituzten hornidura enpresak.

LAUGARREN AZPIATALA

Zerga oinarria

35. artikulua. Zerga oinarria.

1. Kontribuzio berezien zerga oinarria udal erakundeak obrak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo zabaltzeagatik jasaten duen kostuaren ehuneko 90 izango da gehienez.

2. Kostu horretan honako kontzeptu hauek sartuko dira:

a) Peritu lanen, proiektua idazteko lanen eta obra, plan eta programa teknikoen zuzendaritzaren benetako kostua.

b) Egin beharreko obren edo zerbitzuak ezartzeko edo zabaltzeko egin beharreko lanen zenbatekoa.

c) Obrek edo zerbitzuek modu iraunkorrean okupatu beharreko lurren balioa; salbuespenak: erabilera publikoko ondasunak, udal erakundeari doan eta nahitaez lagatako lurrak, eta indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera lagatzen diren ondasun higiezinak.

d) Eraikuntzen eraisketak eta labore sailen, obren edo instalazioen ezabaketak sortzen dituzten kalteordainak, eta eraitsi edo okupatu behar diren ondasunen errentariei eman beharrekoak.

e) Obra edo zerbitzuetan inbertitutako kapitalaren interesa, udal erakundeek kreditua erabili behar dutenean kontribuzio berezien bidez estaltzen ez den zatia, edo estalita dagoena, zatikapen orokorra aplikatuz gero.

3. Obren edo zerbitzuen aurrekontuko guztirako kostua aurreikuspena baino ez da izango. Benetako kostua aurreikusitakoa baino gehiago edo gutxiagoa izanez gero, hura hartuko da aintzat kuotak kalkulatzeko.

4. Foru arau honetako 33.1.c) artikuluan aipatzen diren obren eta zerbitzuen kasuan eta artikuluko bereko 2. idatz zatian aipatzen direnen kasuan (kontzesiodunek udal ekarpenekin egiten dituztenak), kontribuzio berezien zerga oinarria ekarpenen zenbatekoaren arabera zehaztuko da. Nolanahi ere, obra edo zerbitzu beragatik beste kontribuzio batzuk ezarri ahal izango dituzte beste administrazio publiko batzuek. Kasu guztietan, artikuluko honetako lehen idatz zatian aipatzen den muga errespetatuko da: ehuneko 90.

5. Zerga oinarria zehazteko, hauxe izango da udal erakundeak jasandako kostua: kostuaren guztirako zenbatekotik udal erakundeak jasotzen dituen dirulaguntza edo sorospenen zenbatekoa kenduta geratzen den kopurua.

6. Baldin eta dirulaguntza edo sorospena kontribuzio bereziaren subjektu pasibo batek ematen badu, beraren zenbatekoa pertsona edo entitate horren kuota konpentsatzeko erabiliko da lehenengo. Dirulaguntzaren edo sorospenaren balioa kuota hori baino gehiago bada, soberakina gainerako subjektu pasiboen kuotetatik kenduko da, hainbanatuta.

BOSGARREN AZPIATALA

Kuota eta sortzapena

36. artikulua. Zerga kuota.

1. Kontribuzio berezien zerga oinarria subjektu pasiboen artean banatuko da obra edo zerbitzua nolakoa den kontuan hartuz eta honako arau hauek aplikatuz:

a) Orokorrean, ondasun higiezinaren aurrealdeko metro linealak, azalera, bolumen eraikigarria eta ondasun higiezinaren gaineko zergarako katastroko balioa aplikatuko dira, baterako zein banaka, banaketa modulu gisa.

b) Suhiltzaile zerbitzua ezartzen eta hobetzen bada, zerga oinarria udalerriko ondasunen arriskua estaltzen duten entitate edo sozietateen artean banatu ahal izango da, aurreko urtean bildutako primen zenbatekoaren proportzioan. Subjektu pasibo bakoitzari eska dakiokkeen kuota berak bildutako primen zenbatekoaren ehuneko 5 baino gehiago izanez gero, soberakina hurrengo ekitaldietara eramango da erabat amortizatu arte.

c) Foru arau honetako 34. artikuluko 2.d) idatz zatian aipatzen diren obren kasuan, kontribuzio bereziaren zenbateko osoa obra erabiliko duten konpainia edo enpresen artean banatuko da: bakoitzak beretzat erreserbatutako tartearen edo ebakidura osoaren proportzioan ordainduko du, berehala ez erabili arren.

2. Araudi aplikagarriak edo nazioarteko itunek zerga onurarik emanez gero, onuradunei dagozkien kuotak ezin izan dira banatu gainerako zergadunen artean.

3. Ordaindu beharreko kuota zehaztu ondoren udal korporazioak ordainketa zatikatzea edo geroratzea onartu ahal izango du, gehienez bost urterako, subjektu pasiboak eskatuz gero.

37. artikulua. Sortzapena.

1. Kontribuzio bereziak obrak burutzen direnean edo zerbitzua egiten hasten denean sortuko dira. Obrak zatikagarriak badira, sortzapena subjektu pasibo bakoitzarentzat gertatuko da obraren tarte edo zatiki bakoitza egiten denean sortuko da.

2. Aurreko idatz zatian xedatzen dena gorabehera, kontribuzio berezia ezartzeko eta antolatzeke erabakia onartu ondoren udal erakundeak hura aiez aurretik ordaintzeko eskatu ahal izango du hurrengo urterako aurreikusitako kostuaren arabera. Eskatutako aurrerakin bati dagozkion obrak egin arte ezin izango da urteko berriaren aurrerakinik eskatu.

3. Kontribuzio berezi baten sortzapena noiz gertatu den kontuan hartuko da zehazteko hura nork ordaindu behar duen foru arau honetako 34. artikuluan xedatzen denaren arabera, nahiz eta antolamendu erabakian agertzen den subjektu pasiboa onarpenaren egunari dagokiona izan eta horrek kuota aldeztatik ordainduta eduki, artikuluko honetako 2. idatz zatian xedatzen den bezala. Kontribuzioa antolatzen duen erabakian subjektu pasibo gisa agertzen den pertsonak erabakia onartzen denetik kontribuzioa ordaindu beharra sortu arteko aldiaren kontribuzioa eragiten duten ondasunen edo ustiapenen gaineko eskubideak eskualdatzen baditu, subjektu pasiboa delako jakinarazpena jaso ondoren, eskualdaketaren berri eman beharko dio administrazioari ondoko hilabetean, eta ematen ez badiu, administrazioak kontribuzioa espedientearen agertzen den subjektu pasiboari kobratzeari ekin ahal izango dio.

4. Obrak amaitu (osorik edo zati bat) edo zerbitzua egiten hasi ondoren subjektu pasiboak nortzuk diren zehaztuko da, bakoitzaren behin betiko zerga oinarria eta kuota finkatuko dira, bidezko likidazioak egingo dira eta egindako ordainketa aurreratutako konturako emate gisa konpentsatuko dira. Behin betiko oinarriak eta kuotak kontribuzioa ezartzen duen erakundearen organo eskudunek finkatuko dituzte obra edo zerbitzuaren gaineko tributua antolatzen duen erabakian ezartzen diren arauekin bat etorritik.

5. Aurreratutako ordainketak kontribuzioa sortu denean subjektu pasiboa izan ez den pertsona batek egin baditu, edo ordaindutakoaren zenbatekoa behin betiko banakako kuota baino gehiago bada, udalak kopuru egokia itzuliko du ofizioz.

SEIGARREN AZPIATALA

Ezartzea eta antolatzea

38. artikulua. Kontribuzio berezia ezartzeko eta antolatzeko erabakia.

1. Kontribuzio berezia ordainarazteko, aurretik hura ezartzeko erabakia hartu beharko da.

2. Kontribuzio berezien bidez ordaindu beharreko obra bat egiteko edo zerbitzu bat ezartzeko edo zabaltzeko erabakia ezin izango da betearazi harik eta kontribuzio horien antolamendua onartu arte.

3. Kontribuzioak antolatzeko erabakia nahitaez hartu beharko da, eta bertan obra edo zerbitzuaren aurreikusitako kostua, onuradunen artean banatu beharreko zenbatekoa eta banaketa irizpideak zehaztu beharko dira. Kasu batzuetan, antolamenduaren erabakian kontribuzio berezien ordenantza orokorra aipa daiteke, egonez gero.

4. Kontribuzio bereziak antolatzeko erabakia hartu ondoren ordaindu beharreko kuotak zehaztuko dira. Gero subjektu pasibo bakoitzari bere kuotaren berri emango zaio, bera edo beraren egoitza ezaguna izanez gero; bestela, ediktua erabiliko da denei batera jakinarazteko. Interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute (edo administrazioarekiko diru erreklamazioa) foru arau honetako 15. eta 16. artikuluetan xedatzen denarekin bat etorritik. Errekurtsoa honako gai batengatik aurkeztu ahal izango da: kontribuzio berezien bidezko tasuna, onura berezia jasotzen duten pertsonen ordaindu beharreko kostu ehunekoa edo esleitutako kuotak.

39. artikulua. Kudeaketa eta bilketa.

1. Udal eskumeneko obra edo zerbitzua udal erakunde batek egiten badu beste baten laguntza ekonomikoarekin eta kontribuzio berezia foru arau honetan xedatzen denaren arabera ezartzen bada, obra egiteko edo zerbitzua ezartzeko edo zabaltzeko ardura daukan erakundeak kudeatu eta bilduko du kontribuzioa. Nolanahi ere, erakunde bakoitzak ezartzeko eta antolatzeko erabakiak hartzeko eskumena edukiko du.

2. Erakunde bietako batek ez badu onartzen kontribuzioa antolatzeko erabakia, indarrrik gabe geratuko da ekintzaren batasuna, eta bakoitzak bere erabakiak hartuko ditu.

ZAZPIGARREN AZPIATALA

Herritarren lankidetzak

40. artikulua. Herritarren lankidetzak.

1. Obrek ukitzen dituzten jabeek edo titularrek zergadunen administrazio elkarteak eratu ahal izango dituzte eta horren bitartez sustatu ahal izango dute udal erakundeak obrak egitea edo zerbitzuak ezartzea edo zabaltzea. Konpromisoa hartuko dute udal erakundeari obraren edo zerbitzuaren izaeraren arabera dagokien zatia ordaintzeko, berak finantza egoera dela eta aurre egin ezin dionean.

2. Era berean, udal erakunde batek sustatzen duen obra batek edo hark ezartzen edo zabaltzen duen zerbitzu batek ukitzen dituen jabeek edo titularrek zergadunen administrazio elkarteak eratu ahal izango dituzte kontribuzio berezia antolatzeko erabakia jendaurrean dagoen aldian.

41. artikulua. Zergadunen administrazio elkarteak.

Aurreko artikuluan aipatzen diren zergadunen administrazio elkarteak eratzeko ezinbestekoa da erabakia interesdunen gehiengo osoak hartzea; gainera, aldeko botoa ematen dutenek kuoten bi heren ordaindu behar dituzte gutxienez.

IV. KAPITULUA

Partaidetza zerga itunduetan, itunduta ez daudenetan eta gainerako sarrera publikoetan

42. artikulua. Partaidetza zerga itunduetan, itunduta ez daudenetan eta gainerako sarrera publikoetan.

Arabako Lurralde Historikoko udalek partaidetza edukiko dute itundutako zergen kudeaketaren emaitzan, itunduta ez dauden zergen ezarpenean eta araudi aplikagarrian partaidetzekin banatu beharrekotzat jotzen diren sarrera publikoetan. Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak bigarren xedapen gehigarriko lehen idatz zatia ezartzen duena bermatuko da.

43. artikulua. Partaidetza itundutako zergetan.

1. Urtero Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan kreditu hau ezarriko da: Lurralde Historikoko udalek itundutako zergetan duten partaidetzaren kreditua; partaidetza horiek arriskua banatzeko irizpidea aplikatuz zehaztuko da.

Irizpide hori Lurralde Historikoko zerga itunduen sarrerei aplikatuko zaie, konpentsazioak, kenkariak eta bidezko beste murrizketa batzuk egin ondoren.

2. Arabako Foru Aldundiak berariaz ezartzen den foru araudiaren arabera banatuko ditu kopuruak udal erakundeen artean.

44. artikulua. Partaidetza itunduta ez dauden zergetan.

Udal erakundeek itundu gabeko zergen sarreretan duten partaidetza Ekonomia Itunean xedatzen denaren arabera gauzatuko da.

V. KAPITULUA

Dirulaguntzak

45. artikulua. Dirulaguntzak.

1. Arabako Lurralde Historikoko udalek beren obretarako eta zerbitzuetarako lortzen dituzten denetariko dirulaguntzak ezin izango dira erabili beste helburu batzuetarako; salbuespena:

itzuli behar ez diren soberakinak, baldin eta dirulaguntza ematen duen erabakian nola erabili behar diren zehazten ez bada.

2. Aurreko idatz zatian xedatzen dena beteko dela bermatzeko, dirulaguntzak ematen dituzten erakunde publikoek haien xedea egiaztatu ahal izango dute. Egiaztapen egintzei esker jakiten bada dirulaguntza bat ez dela erabili eman den helbururako, eman duen erakunde publikoak eskatu ahal izango du zenbatekoa itzultzeko edo udal erakundeak jaso ditzakeen beste dirulaguntza edo transferentzia batzuekin konpentsatzeko. Hori gorabehera, erantzukizunak gerta litezke.

VI. KAPITULUA

Prezio publikoak

LEHEN ATALA

Xedapen orokorra

46. artikulua. Kontzeptua.

Arabako Lurralde Historikoko udalek, korporazioak erabakia hartuta, eta araudi honen esparruan, prezio publikoak ezarri eta eskatu ahal izango dituzte udal eskumeneko zerbitzuak edo jarduerak egiteagatik, baldin eta ez bada gertatzen foru arau honetako 23.1 artikuluko B) letran zehazten diren inguruabarretako bat bera ere,

47. artikulua. Baztertutako zerbitzuak eta jarduerak.

Ezin izango da eskatu prezio publikorik foru arau honetako 23. artikuluan aipatzen diren zerbitzuak egiteagatik.

BIGARREN ATALA

Ordainketa egin behar dutenak

48. artikulua. Ordainketa egin behar dutenak.

Prezio publikoak ordaindu behar dituzte haiek ordaindu beharra dakarten zerbitzuen edo jardueren onura jasotzen dutenek.

HIRUGARREN ATALA

Zenbatekoa eta ordaindu beharra

49. artikulua. Zenbatekoa.

1. Prezio publikoaren zenbatekoak egindako zerbitzuaren edo jardueraren kostua estali behar du, gutxienez.
2. Gizarte, ongintza, kultura edo interes publikoaren arrazoiengatik gomendagarria denean, udalek aurreko idatz zatian aurreikusitako mugaren azpiko prezio publikoak ezarri ahal izango dituzte. Horrelako kasuetan, diferentzia (badago) estaltzeko behar diren zuzkidurak ezarri beharko dira udal erakundearen aurrekontuetan.

50. artikulua. Kudeaketa.

Arabako Lurralde Historikoko udalek autolikidazio bidez eskatu ahal izango dituzte prezio publikoak.

LAUGARREN ATALA

Kobrantza

51. artikulua. Kobrantza.

1. Prezio publikoa ordaindu beharra zerbitzua edo jarduera egiten hasten denean sortzen da; hala ere, udalek zenbateko osoa edo zati bat aldeztetik jartzeko eskatu ahal izango dute.
2. Prezio publikoa ordaindu behar duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzua edo jarduera egiten ez bada, diru kopurua itzuli beharko da.

BOSGARREN ATALA

Finkatzea

52. artikulua. Finkatzea.

Prezio publikoak udalbatza osoak ezarri edo aldatu behar ditu, indarreko legeriarekin bat etorriz.

VII. KAPITULUA

Kreditu eragiketak

53. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru arau honetan ezartzen denarekin bat etorritz, eta erakunde eskudunek ematen dituzten xedapenen esparruan, toki erakundeek eta beren erakunde autonomoek, horien menpeko enpresa erakunde publikoek, fundazioek eta merkataritzako sozietateek modalitate guztietako kreditu eragiketak egin ahal izango dituzte, epe laburrera zein epe luzera, eta interes tasaren eta truke tasaren arriskuak estaltzeko eta kudeatzeko finantza eragiketak ere bai.

Foru arau honetan ezartzen dena aplikatzeko, merkataritzako sozietate bat toki erakunde baten menpekotzat joko da toki erakundeak ehuneko 50etik gorako partaidetza badauka haren kapitalean edo funtsean.

lido beretik, fundazio bat toki erakunde baten menpekotzat joko da inguruabar hauetako bat gertatuz gero:

- a) Fundazioaren eraketan ekarpen handiena egin duena, zuzenean zein zeharka, toki erakundea izatea, edo beraren erakunde autonomo bat edo tokiko sektore publiko erakunde bat.
- b) Fundazioaren ondare iraunkorraren ehuneko 50 baino gehiago aurrean aipatutako erakundeek emandako edo lagatako ondasunak edo eskubideak izatea.

54. artikulua. Helburua, tresnak eta bermeak.

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren erakundeek mota guztietako epe luzerako kreditu publiko zein pribatuetara jo ahal izango dute beren inbertsioak finantzatzeko eta aurreko kreditu eragiketak ordeztzeko (denak edo batzuk bakarrik).

2. Kreditua honela gauzatu daiteke:

- a) Zor publikoa jaulki.
- b) Mailegua edo kreditua kontratatu.
- c) Kreditu publikoa edo pribatua baliatzeko beste moduren bat.
- d) Lehengo eragiketak (denak edo batzuk) bihurtu eta ordeztu.

3. Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 34. artikuluko 2. idatz zatiko azken paragrafoan eta 49. artikuluko 4.

idatz zatiko azken paragrafoan ezarritako aparteko kasuetan kreditua modu batean bakarrik gauzatu ahal izango da: finantza entitate batekin hitzartutako mailegu edo kreditu baten bitartez.

4. Kreditu eragiketen ondoriozko betebeharren ordainketa honela bermatu ahal izango da:

A. Epe laburrerako kreditu eragiketak:

a. 56.1.a) artikuluan ezarritako kasuan, aurrekariaren zerga baliabideen afektazioaren bidez (ekitaldi ekonomikoan sortutako baliabideak; emandako aurrekarien zenbatekoa gehienez).

b. Toki erakundeek erakunde autonomoek eta menpeko merkataritzako sozietateek egiten dituzten mailegu edo kreditu eragiketetan, korporazioak emandako abalaren bidez. Sozietatean hainbat toki erakundeek badaukate partaidetza, partaide bakoitzaren abala sozietatearen kapitalean daukan partaidetza ehunekoaren arabera izango da.

c. Zerga bereziek, tasek eta prezio publikoek sortzen dituzten sarreren afektazioaren bidez.

B. Epe luzeerako kreditu eragiketak:

a. Ondare ondasunen gaineko berme erreala eratu daiteke.

b. Aurreko A.b idatz zatiko tresna baliatu daiteke.

c. Zerga bereziek, tasek eta prezio publikoek sortzen dituzten sarreren afektazioaren bidez, baldin eta zuzeneko erlazioa bada baliabide horien eta kreditu eragiketaren bidez finantzatu den gastuaren artean.

d. Kreditu eragiketaren xede den inbertsioa Europar Batasunaren funtsekin edo administrazio publiko baten ekarpenekin ere finantzatu bada, kapital dirulaguntzaren beraren bidez, baldin eta zuzeneko erlazioa badaukate kreditu eragiketaren bidez finantzatu den gastuarekin.

5. Toki erakundeak kapitalean ehuneko 30eko partaidetza edo handiagoa daukan erakunde autonomoek eta menpeko enpresa erakunde publikoek, fundazioek eta merkataritzako sozietateek egiten dituzten mailegu edo kreditu eragiketak korporazioak bermatu ahal izango ditu.

Abalak bermatzen duen kredituaren ehuneko ezin da izan sozietateko partaidetzaren ehuneko baina handiagoa.

6. Toki korporazioek, beren interesak babesteko beharrezkotzat joz gero, beren eskumeneko obrak eta zerbitzuak egiteko ondoren azalduko diren erakundeek egiten dituzten kreditu eragiketak (mota guztiak) gauzatzeko beharrezkoa den abala edo bermea jarri ahal izango dute (abal edo berme bat eragiketa bakoitzeko): obra edo zerbitzu bat egiteko kontratatutako pertsonak edo erakundeak edo haiei onura ematen dien kontzesio bat ustiatzen dutenek.

7. Udalek abalak jarri ahal izango dituzte Obra eta Zerbitzuen Foru Plana eta Arabako Foru Aldundiak toki erakundeek obra eta zerbitzuetan laguntzeko erabiltzen dituen beste finantza

tresna batzuk arautzen dituen apirilaren 24ko 14/1997 Foru Arauko 33. artikuluan araututako eragiketak egiteko.

8. Aurreko lau idatz zatietan aipatzen diren eragiketek aldez aurreko fiskalizazioa jasango dute. 5., 6. eta 7. idatz zatietako kasuetan bermatutako maileguaren zenbatekoa ezin da izan obra edo zerbitzua erakundeak berak zuzenean finantzatzuz gero izango zena baino gehiago.

55. artikulua. Kreditu eragiketak egitea.

1. Foru arau honetan ezarritako epe luzerako kreditu eragiketak egiteko ezinbestekoa izango da indarreko behin betiko aurrekontuan edo aurrekontuaren luzapenean sartzea.

2. Horrelako eragiketa bat egiteko edo aldatzeko erabakia hartu aurretik kontuhartzaileak txostena egin beharko du, eta bertan ondokoak aztertu beharko dira batik bat: toki erakundearen gaitasuna eragiketaren ondoriozko betebeharrei garaiz aurre egiteko; eragiketak aurrekontu egonkortasunean eta finantza iraunkortasunean daukan eragina.

3. Toki erakundeek sinatzen dituzten kreditu eragiketa guztietarako eta abalak edo bestelako berme publikoak emateko finantza zuhurtasunaren printzipioari jarraitu beharko zaio. Finantza zuhurtasunaz ulertzen da finantza eragiketek arriskua eta kostua murrizteko bete behar dituzten baldintzak.

Eragiketek bete behar dituzten baldintzak finantza babesean eskumena duen sailaren titularrak emandako foru aginduaren bidez ezarriko dira.

56. artikulua. Epe laburrerako kreditu eragiketak.

1. Toki erakundeek kreditu eragiketak egin ahal izango dituzte epe laburrera, hau da, urtebetetik beherako epera, diruzaintzaren beharrian iragankorrei aurre egiteko. Horretarako ezinbestekoa izango da eragiketa guztien zenbatekoa ez izatea aurreko ekitaldian eragiketa arruntengatik likidatutako sarreraren ehuneko 30 baino gehiago; salbuespena: eragiketa aurreko ekitaldiko aurrekontua likidatu baino lehen egin behar bada, ekitaldi horren aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa hartuko da aintzat. Hori dela eta, epe laburrerako kreditu eragiketatzat hartuko dira, besteak beste:

a) Errolda eta matrikulen bidez likidatzen diren zergek ekitaldi ekonomiko bakoitzean sortzen dituzten kopuruaren kontura finantza entitateek ematen dituzten aurrerakinak (zerga bilketako organoen bitartekaritzarekin zein halakorik gabe).

b) Finantza entitateek diruzaintzako desoreka iragankorrak estaltzeko ematen dituzten maileguak eta kredituak.

c) Urtebeteko aldia gainditzen ez duten zor jaulkipenak.

2. Toki erakundeek egutegiko hiruhileko bakoitzaren itxieran dauzkaten kreditu kontu bizeiei buruzko informazioa bidali beharko diote toki administrazioaren arloko eskumenak dauzkan sailari hiruhilekoa ixten denetik hilabete pasatu baino lehen.

57. artikulua. Epe luzerako kreditu eragiketak egiteko baimena emateko araubidea.

1. Arabako Foru Aldundiaren organo eskudunek baimena eman ezean, batez merkatuko sarreren bitartez finantzatzen ez diren zerbitzuak egiten edo ondasunak sortzen dituzten toki erakundeek eta beraien erakunde autonomoek eta menpeko enpresa erakunde publikoek, fundazioek eta merkataritzako sozietateek ezin izango dute egin epe luzerako kreditu eragiketa berririk (hauetan sartzen dira kontratuan ezarritako baldintzak aldatzen dituzten eragiketak eta kontratuan berme gehiago sartzen dituztenak, gainontzekoen bitartekaritzarekin zein halakorik gabe), ez abalik eman, ez aurreko kreditu eragiketarik ordeztu, baldin eta azken ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, emaitza arruntak eta jarduera arruntaren emaitzak islatzen dituzten egoera orrien arabera aurrezki garbia negatiboa izan bada.

Hori dela eta, toki erakundeek eta beraien erakunde autonomoen aurrezki garbia kalkulatzeko kenketa hau egin behar da: sarrera arruntengatik eta gastuen orriko lehen, bigarren eta laugarren kapituluetan onartutako betebeharrengatik likidatutako eskubideetatik egin nahi den eragiketaren eta toki erakundeak egindako eta gainontzekoei abalatu eta jasotzeko dagoen mailegu eta jesapen bakoitzaren amortizazio teorikoaren urteko kopurua kendu. Korporazioak hartutako eta gainontzekoei abalatu eta jasotzeko dagoen mailegu bakoitzaren amortizazio teorikoaren urteko kopurua eta egin nahi den eragiketarena konstanteak aplikatuta kalkulatu behar da amortizazioaren urteko interesak eta kuota kontuan hartuta, eragiketa mota guztietan eta ezarritako baldintzak gorabehera. Toki erakundeek menpeko enpresa erakunde publikoen, fundazioen eta merkataritzako sozietateen aurrezki garbitzat jotzen da beraien jarduera arruntaren emaitzen zenbatekoa, mailegu eta jesapenen interesak zenbatu gabe eta aurreko paragrafoan azaldutako amortizazio teorikoaren urteko zenbatekoa kenduta. Aurrezki garbian ez dira sartuko kredituen aldaketen ondorioz onartutako betebeharrak, diruzaintzako gerakin likidoen baliatuta finantzatu direnak. Urteko kopuru teorikoen kalkuluan ez dira kontuan edukiko ondasun higiezinaren gaineko hipotekekin bermatutako kreditu eragiketak, hain zuzen ere bermeak estaltzen duen maileguaren zatiaren proportzioan. Toki erakundearen menpeko erakunde autonomoaren, enpresa erakunde publikoaren edo merkataritzako sozietatearen jarduera etxebizitzak eraikitzea bada, aurrezki garbia kalkulatzeko azken bi ekitaldietako batez bestekoa hartuko da kontuan.

Aurrezki garbia negatiboa bada, toki korporazioaren osoko bilkurak finantzak saneatzeko plana onartu beharko du eta plana hiru urte pasatu baino lehen gauzatu beharko da. Plan horretan kudeaketaren, zergen, finantzen eta aurrekontuen inguruko neurriak ezarri behar dira toki erakundearen, erakunde autonomoaren edo merkataritzako sozietatearen aurrezki garbia negatiboa izan ez dadin, gutxienez. Plana baimenaren eskaerarekin batera aurkeztu beharko da.

2. Aurreko 1. idatz zatian aipatzen diren organoen baimena beharko da epe luzerako denetarikoa kreditu eragiketak egiteko, abaletatik sortutako arriskua barne, indarreko epe laburrerako eta epe luzerako kreditu eragiketen guztirako kapital bizia, egin nahi den

eragiketaren zenbatekoa gehituta, aurreko ekitaldian likidatutako sarrera arrunten ehuneko 110 baino gehiago bada (edo horren aurreko ekitaldian likidatutako sarrera arrunten ehuneko 110 baino gehiago, kalkulua urteko lehenengo sei hilekoan egin behar bada aurreko ekitaldiko likidazioa egin gabe dagoela), artikuluko honetako 1. idatz zatian aipatzen diren erakundearen kontabilitateko egoera orri bateratuetan bildutako kopuruen arabera. Baimena emateko kontuan edukiko da defiziterako eta zor publikorako ezarritako helburuak betetzen diren eta aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren inguruko arautegian ezarritako printzipioak eta betebeharrak betetzen diren. Gainera, eskaera aurkezten duen udal erakundearen egoera ekonomikoa eta kredituaren amortizazioaldia eta baldintzak ere hartuko dira kontuan.

Aurreko paragrafoan araututako ehuneko kalkulatzeko indarrean dauden epe laburrerako eta epe luzerako kreditu eragiketak hartuko dira kontuan, eta eragiketen balioa ezartzeko balantzean sartzeko erabiltzen diren irizpide berak aplikatu beharko dira. Abalen ondoriozko arriskua kalkulatzeko aurreko irizpide bera aplikatuko zaio abalaturako eragiketari.

3. Nolanahi ere, egin nahi den epe luzerako kreditu eragiketa berri baten zenbatekoa aurreko ekitaldian likidatutako sarrera arrunten ehuneko 5 baino gehiago bada (edo horren aurreko ekitaldian likidatutako sarrera arrunten ehuneko 5 baino gehiago, aurreko ekitaldiko likidazioa egin gabe badago), Arabako Foru Aldundiko organo eskudunei loteslea ez den aginduzko txostena eskatu beharko zaie zor berriak erakundearen aurrekontuetan edukiko duen eragina argitzeko. Txosten hori honelako eragiketak egiteko eskumena daukan organoari bidali beharko zaio eskatzen duenetik bi hilabete pasatu baino lehen.

4. Aurreko 1. idatz zatian aipatutako finantzak saneatzeko plana ez da aurkeztu beharko kasu honetan: baldin eta egin nahi den kreditu eragiketaren helburua epe luzerako aurreko kreditu eragiketa bat ordeztekoa bada (Foru Arauan ezarri da nola) horren finantza zama murrizteko edo arriskua arintzeko (mugaeguneratu gabe dauden betebeharrak).

5. Arabako Foru Aldundiaren baimena beharko da epe luzerako zein laburrerako kreditu eragiketak egiteko, abalak emateko eta kontratuan ezarritako baldintzak aldatzen dituzten eragiketak eta kontratuan berme gehiago sartzen dituztenak egiteko, gainontzekoen bitartekaritzarekin zein halakorik gabe, ondoko kasu hauetan:

a) Atzerrian egiten diren eragiketak edo Espainian egoitza ez duten finantza entitateekin egiten direnak, dena dela eragiketaren kapitala finkatzeko erabiltzen den dibisa, ondokoak barne: Espainian egoitza ez duten finantza entitateei lagatzea Espainian egoitza duten entitateek batez merkatuko sarreren bitartez finantzatzen ez diren zerbitzuak egiten edo ondasunak sortzen dituzten toki erakundeei eta beraien erakunde autonomoei eta menpeko erakunde, fundazio eta merkataritzako sozietateei emandako kredituetan dituzten partaidetzak.

b) Zor jaulkipenen bidez edo kreditu publikoa baliatzeko moduen bidez gauzatzen direnak, Balore Merkatuei buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean ezarritakoa gorabehera.

Aurreko a) paragrafoan ezarritakoa dela eta, ez dira kanpoko finantzaketatzat joko Europar Batasuneko herrialdeen lurralde eremuaren barruan eurotan egiten diren eragiketak, eta egoitza herrialde horietan duten finantza entitateekin egiten direnak ere ez. Eragiketa horiek egin aurretik Arabako Foru Aldundiari jakinarazi behar zaizkio.

6. Aldi baterako inbertsioak finantzatzeko epe laburrerako eragiketak egiteko baimena beharko da, eta hori lortzeko ezinbestekoa izango da toki erakundeak frogatzea mugaegunean eragiketa kitatzeko beharko diren funtsak edukiko dituela. Honelako eragiketei ez zaizkie aplikatuko foru arau honetako 56. artikuluan ezarritako mugak.

7. Artikulu honetan ezarritako erregelen arabera Arabako Foru Aldundiko organo eskudunen baimena behar bada kreditu eragiketa bat egiteko, eragiketa horri lotutako gastu konpromisoak ezin dira irmo bihurtu harik eta baimena eskuratu arte. Horren ildotik, Arabako Foru Aldundiko organo eskudunek baimenari buruz bidaltzen duten komunikazioa toki erakundeari bidaliko zaio kreditu eragiketa egiteko eskaera aurkeztu denetik bi hilabete pasatu baino lehen.

8. Arabako Foru Aldundiaren urte bakoitzeko aurrekontuei buruzko foru arauan mugak ezarri ahal izango zaizkio toki erakundeek baliagarri edukiko duten kredituari abagune jakin bateko politika ekonomiko orokorrak bultzatuta. Aurrekontuak luzatuta badaude, mugak ezarri ahal izango dira berariaz onartutako foru arau baten bidez.

9. Titulu honetan araututako eragiketen berri eman beharko zaie Arabako Foru Aldundiko organo eskudunei; arau bidez ezarriko da nola.

10. Foru arau honetarako toki erakundeen eta beren erakunde autonomoen sarrera arruntak dira sarreraren egoera orriko lehenengo bost kapituluetan likidatzen diren eskubideak,

58. artikulua. Erakunde autonomoen, enpresa erakunde publikoen eta merkataritzako sozietateen epe luzerako kreditu erakundeak.

Toki erakundeen menpeko erakunde autonomoek, enpresa erakunde publikoek eta merkataritzako sozietateek aurreko artikuluan aipatzen diren betekizunak betetzeaz gainera ondokoak ere beharko dituzte epe luzerako kreditu eragiketak egiteko: tokiko korporazioaren osoko bilkuraren baimena eta kontuhartzaitzaren txostena.

III. TITULUA

UDALERRIAZ GAINDIKO ERAKUNDEAK

59. artikulua. Udalerriaz gaindiko erakundeen ogasuna.

Arau honetan eta berau garatzen duten xedapenetan ezartzen den esparruan, udalerriaz gaindiko erakundeen ogasunean haien sorrera estatutuetan ezartzen diren baliabideak sartzen dira.

60. artikulua. Kudeaketa.

1. Mankomunitateek, kuadrillek eta gainerako udalerriaz gaindiko erakundeek tasak, kontribuzio bereziak eta prezio publikoak ezarri eta eskatu ahal izango dituzte arau honetan Arabako Lurralde Historikoko udalentsat ezartzen den prozedura berarekin.

2. Halaber, udalerriaz gaindiko erakundeek atxikita dituzten erakundeen ekarpen arruntak ez ezik honako baliabide hauek ere erabili ahal izango dituzte:

- a) Beren ondareak sortzen dituen sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainerako guztiak.
- b) Beren eskumenen eremuan jartzen dituzten isunen eta zehapenen emaitzak.
- c) Dirulaguntzak.
- d) Kreditu eragiketen emaitza.
- e) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak.

3. Artikulu honetako aurreko zenbakietan ezartzen denari dagokionez, foru arau honetako II. titulua eta hura garatzen duten xedapenak aplikatuko dira, kasu bakoitzean bidezkoak diren berezitasunak kontuan hartuz.

4. Udalerriaz gaindiko erakunde baten finantza araubideak ez du aldatuko hari atxikitako udalen berariazko finantza araubidea.

61. artikulua. Udalerriaz gaindiko erakundeek kontribuzio bereziak ezartzea.

1. Udalerriaz gaindiko erakunde batek kontribuzio berezia ezartzen badu udalerrri batean edo batzuetan eragina duen obra bat egiteagatik edo zerbitzu bat ezartzeagatik eta zabaltzeagatik, gobernuko goi organoak, obrak ukitzen duen zonaldea mugatzean edo zonalde bakoitzean sortuko duen onura berezia zehaztean, zergadunen zuzeneko interesaren eta udalerrriaren edo udalerrrien interes komunaren arteko bereizketa egin ahal izango du.

2. Aurreko idatz zatian aipatzen den kasuan, udalerriaz gaineko erakundeetan dauden udalak zergadunak izango dira, eta beren kuotak ordaindu beharko dituzte udal tributua hau arautzen duten arauekin bat etorritik.

3. Udalei zergadun gisa ezartzen zaizkien kuotak bateragarriak izango dira udalek berek atxikita dauden erakundeetan obra publikoak, instalazioak edo zerbitzuak ordaintzeko eman dituzten dirulaguntzek, sorospenek eta bestelako lankidetzak mota guztiek eragindako gastuei aurre egiteko ezartzen dituztenekin.

62. artikulua. Partzuergoak.

1. Toki erakundeek eraten dituzten partzuergoei eman ahal izango diete partzuergoen kargura egiteko ezartzen dituzten zerbitzuen prezio publikoak finkatzeko ahalmena, estatutuetan besterik ezarri ezean, kasu honetan izan ezik: prezioak zerbitzuaren kostua estaltzen ez duenean.

2. Partzuergoek proposamenaren eta egoera ekonomikoaren kopia berri bidali beharko die atxikitako erakundeei; prezio publikoak zerbitzuaren kostua estaliko duela frogatu behar da.

3. Toki erakundeek eraten dituzten partzuergoei eskuordetu ahal izango dizkie partzuergoak bere gain hartutako zerbitzuak egiteagatik ordaindu beharreko tasak kudeatzeko, likidatzeko eta biltzeko ahalmenak; horretarako lankidetzaren formula egokiak erabiliko dira.

4. Halaber, partzuergoek atxikita dituzten erakundeen ekarpen arruntak ez ezik honako baliabide hauek ere erabili ahal izango dituzte:

- a) Beren ondareak sortzen dituen sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainerako guztiak.
- b) Beren eskumenen eremuan jartzen dituzten isunen eta zehapenen emaitzak.
- c) Dirulaguntzak.
- d) Kreditu eragiketen emaitza.
- e) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak.

IV. TITULUA

Udalerria baino lurralde eremu txikiagoko erakundeak

63. artikulua. Udalerria baino lurralde eremu txikiagoko erakundeak.

1. Udalerria baino lurralde eremu txikiagoko erakundeek tasak, kontribuzio bereziak eta prezio publikoak ezarri eta eskatu ahal izango dituzte beren jarduna arautzen duten legezko xedapenetan ezartzen denarekin bat etorriz, eta partaidetza eduki ahal izango dute beren udalerraren baliabideetan.

2. Halaber, aurreko idatz zatian ezartzen den esparruan, erakunde hauek honako baliabide hauek erabili ahal izango dituzte:

- a) Beren ondareak sortzen dituen sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainerako guztiak.
- b) Dirulaguntzak.

c) Beren eskumenen eremuan jartzen dituzten isunen eta zehapenen emaitzak.

d) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak.

3. Erakunde hauei foru arau honetako II. tituluan eta bera garatzen duten xedapenetan xedatzen dena aplikatuko zaie, kasu bakoitzean bidezkoak diren berezitasunak kontuan hartuz.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA.

Nahiz eta Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren bidez udal erakundeen tributuak kendu eta tributu horiek arautzen dituzten xedapenak indargabetu, Administrazioak eskubidea du, xedapen horien arabera, aipatutako Foru Araua indarrean sartu aurretik sortutako zorrak eskatzeko.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA. Gaitzea.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

OHARRAK

(1) 12/2026 Foru Araua, ekainaren 10ekoa.
(ALHAO, 71.zk, 26-6-22koa).

(2) 13/2026 Foru Araua, ekainaren 10ekoa.
(ALHAO, 71.zk, 26-6-22koa).